

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKUKO

HITZA

GAIAK IRITZIA HERRIAK MULTIMEDIA AGENDA BIDEO ERREPORTAJEAK ATAL BEREZIAK ZOZKETAK

Nork: Eider Mugartegi -Ots 2, 2017

## HERICOAST-INTERREG EUROPA PROIEKTUKO KIDEEK LEA-ARTIBAI BISITATU DUTE



Proiektua koordinatu eta praktika onak ezagutzeko asmoz, Hericoast-eko kideak Lea-Artibain egon ziren joan den astean. Hiru egunetan zehar eskualdea ezagutzeko aukera eduki zuten. Besteak beste, **Markina-Xemeingo** Arretxinagako ermita, Frontoia eta Zesta Puntaren historia, **Ondarroako** Abxeternu, portua, alde zaharra, hondartzako eta Calatrava zubiak eta **Lekeitioko** Mendieta, eliza, Santa Katalina Itsasargiko Interpretazio Zentroa, **Lea Ibilbidea**, **Bengola** Natur Energiaren Interpretazio Zentroa bisitatu zituzten, eta gainera, bertoko produktuak dastatzeko aukera ere eduki zuten.

Leartibai Garapen Agentzia, kostaldeko kultura ondarea kudeatzeko **lurralde politikak hobetzea** helburu duen Hericoast-Interreg Europa proiektu europarrean parte hartzen ari da, ondarearen ustiapen eta babes ekintzen arteko oreka lortzeko bidean. Eskualde Garapenerako Europako Funtsaren (EGEF) dirulaguntza jaso duen proiektu horrek, bost urteko iraupena izango du.



Hericoast proiektukoak zesta-punta ezagutzen Markina-Xemeingo frontoian. Argazkia: Leartibai Garapen Agentzia

Leartibai Garapen Agentziakoek azaldu dutenez, eskualdeko ondare natural, kultural eta, oro har, paisaia guztiagaz **liluraturata** gelditu ziren europako kideak, eta datorren maiatzean Erresuma Batuan ospatuko den **Marinescape Forum** izeneko ondarearen inguruko topaketara gonbidatu dituzte. Gainera, bisitatu dituzten esperientziak bat aurkezteko aukera ere proposatu zieten.

**Nazioarteko partaidetza.** Leartibai Garapen Agentziagaz batera, Hericoast proiektuan Vest Adger Diputazioak (Norvegia), Gaztela eta Leongo Juntak (Espainia), Molise eskualdeak (Italia), Donegal Diputazioak (Irlanda), Tulcea eskualdeak (Errumania), CIVISCAPEK eta Amsterdameko Unibertsitateak (Holanda) parte hartzen dute. Lea-Artibai eskualdeari dagokionez, tokiko lan-taldearen barruan, ondarearen inguruko politikak garatzen dituzten erakundeekin elkarlanean ari da garapen agentzia: Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Finantza Sailagaz, Eusko Jaurlaritzako Kultura saila eta Ondare Kultureleko Zuzendaritzagaz, Hazigaz, Basquetouregaz, Lea-Artibaiko udalekin eta enpresa-sareagaz, kultura eta ondare elkarrekin.



Hericoast proiektuko bazkideak Lea-Artibai eskualdean zehazr bisitan. Argazkia: Leartibai Garapen Agentzia

Hericoast-Interreg Europa proiektuko hurrengo urratsa eskualde bakoitzeko **bost praktika on** identifikatzea izango dela jakitera eman dute. "Maiatzean, Gaztela eta Leonen, proiektuko partaide guztiok ospatuko dugun topaketan aurkezteko".